SAGARDOAREN LURRALDEA
el territorio de la sidra

XVI. SAGAR UZTA 2016 ASTIGARRAGAN
Irailak 22-24-25



Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, irailaren 22-25a bitartean XVI. Sagar Uzta ospatuko da Astigarragan. Sagar Uzta, sagarraren festa da eta tolaretako lanen hasiera ospatzen du sagarraren eta sagardoaren kulturan oinarrituriko jarduerekin.

Aurreikusitako **egitaraua** honakoa da:

Osteguna, Irailak 22
19:00-21:00: **PINTXO-POTEA** Astigarragako tabernetan. Sagarren eratorriekin egindako pintxoak emango dira.

Larunbata, Irailak 24
09:30: "**SAGAR MOTAK EZAGUTUZ**", Santiagomendiko Sagardo Bidean zeharko mendi-buelta familian*.
10:00: **III. SAGARDOBIDE ERRONKA**. Santiagomendin zeharko errelebo proba.

Igandea, Irailak 25
SAGARRAREN JAIA Foru enparantzan.
09:30: Musika Eskolako txistu ikasleen eta Txirriskla Txistulari Taldearen diana.
10:30-12:00: IX. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean izen-emateak plazan*.
11:00-14:00: Museo Enogastronomikoen Sarearen tailer gastronomikoak*.
11:00-13:30: Haurrentzako tailerrak eta jolasak.
11:00-13:30: Herrien arteko Marmitako Lehiaketa.
11:00-14:00: Sagarraren azoka:
- Sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta.
- Sagardo dastaketa.
- Saski, txertaketa, etab-en erakustaldiak.
- Herriko baserritarren produktuen salmenta.
- Trikitilariak eta abeslariak herrian zehar.

11:00: 2016 uztako lehen muztioaren elaborazioa. Sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.
12:30: Sagar dantza eta kirikoketa.
13:00: Txalaparta eta urteko lehen muztioaren dastaketa.
13:00: Kizki Eguna. 700 kizki lagun baietz!*
14:30: Herri bazkaria frontoian.
17:30: Herrien arteko sagargintzaz desafioa.

* **Izen emateak**: 943550575 / info@sagardoarenlurraldea.eus

Sagardoaren lurraldea • *El territorio de la sidra*
Kale Nagusia 48 • 20115 Astigarraga • Gipuzkoa • Tel: 00 34 943 550 575 • www.sagardoarenlurraldea.com